

GRATIEN ALBERT GOYHENECHÉ
JAUN MEDIKU ETA DONIBANE LOHIZUNEKO
AUZAPEZ OHIAREN OHORETAN (1847-1900)

2000-VII-21

Jean Haritschelhar

Euskaltzain kideak,

Jaun-andereak, arratsalde on!

Berehala erran behar dizuet Soubelet jaunak jakin arazi didala ezin etorri dela; eri delakotz; eta, beraz, hasiko dugu gure bilkura idekia Gratien Albert Goyheneche-ren ohoretan, agurtzen ditudalarik areto honetan dauden pre-sona guziak. Eskerrak bihurtzen dizkiet Donibane Lohizuneko auzapez andereari eta haren auzapez-orde den Soubelet jaunari eskaini digutelakotz areto nagusi hau egun guziko, goizean gure hileroko bilkurarentzat, aratsaldean eginen dugun omenaldi honentzat, ahantzi gabe ekitaldi hau bukatzean hurru-paño bat eskainia izanen zaigula.

Goyheneche jaun medikua sortu zen Donibane Lohizunen 1847ko mar-
txoaren 5ean eta zendu 1900eko urtarrilaren 18an, ez zituela oraindik bete 53
urte. Gazte gazterik zendu zen, beraz; gazte-gaztea zela ere Donibaneko au-
zapez izendatua izan zelarik lehen aldikotz 1888an, 41 urtetan. Bi aldiz ez-
kondu zen. Lehenik Aihertar batekin, Philomène Londaitz zeritzana, eta, alar-
gundu-eta, Hegoaldeko Maria de los Dolores Petra Gonzalez de Zorrilla
anderearekin.

XIX. mendeko azken hamarkada berezia izan da Donibane Lohizunen,
sekulako gataskak gertatu baitziren “xuri” eta “gorri”-en artean.

Xurietan zagon Goyheneche medikua, auzapez 1888an, bainan gobernuak
baztertua 1890an; berriz auzapez 1892an; baztertua berriz ere 1896an; auza-
pez hirugarren aldikotz urte berean eta hil artio.

Bainan nik baino hobeki Manex Goyhenetche historialari eta euskaltzain
urgazleak erakutsiko digu zer izan den orduko giroa, ez bakarrik Donibane
Lohizunen, baina Iparralde osoan.

Goyheneche medikua auzapez zelarik, Donibane Lohizunek ezagutu zituen hiru biltzar haundi. Lehena, 1892an. Egin zitzaion omenaldi ospetsua Antoine d'Abbadie jaunari, izendatua izan zelakotz, hain zuzen, Pariseko "Académie des Sciences" delakoaren presidentea. Omenaldi horretan parte hartu zuten Euskal Herriko zazpi probintzietako agintari eta kultura taldeek. Alabaina, Antoine d'Abbadie –orduan 82 urte zituen–, Lore Jokuen sortzaileak, Euskal Herri osoan hedatu zituenak, merezi zuen holako omenaldia. Ezin ahanzizko bestak izan ziren, "Zazpiak bat" aldarrikatu zuela Antoine d'Abbadie-k bere eskerrezko mintzaldian.

Bi urteren buruan, 1894ean Donibane Lohizuneko herriko etxeak antolatu zituen euskal bestak Antoine d'Abbadie eta Serbiako erregina Nathalie-ren babespean. Orduan ere pilotariak, euskal dantzariak, bertsulariak jokatu ziren ahanzi gabe Lore Jokoetara igortzen ziren bertsuak. Dudarik gabe, Donibane Lohizune agertzen da euskal kulturaren bihotz gisa. Are gehiago 1897an bildu zirelarik orduko euskaltzaleak "Le Congrès de la Tradition basque" deitua izan zen biltzar nagusian, haren aktak agertu zirela bi urteren buruan, 1899an. Horiek guztiak aipatuko ditu Mikel Zalbide euskaltzain urgazleak, jakinik hamarkada horren ondorioak gauzatuko zirela Hegoaldeko eta Iparraldeko euskaltzaleak bilduz Hendaian 1901ean eta Hondarribian 1902an, bi kongresu famatuetan.

Nola ez aipa xuri-gorrien arteko gatasketan agertzen zirela Donibane Lohizunen bi auzapez, bat gorria, Martin Guilbeau, bertzea xuria Gratien Albert Goyheneche, biak euskaltzaleak, haundizki euskaltzaleak, bakoitzak bere aginahalak ginez euskararen eta euskal kulturaren alde.

Horretan bururatzen dut ene mintzaldia, hitza emanez lehenik Manex Goyhenetche-ri eta gero Mikel Zalbide-ri, eskerrak bihurtuz bati nola bertze-ari bien emaitzaren gatik eta halaber errepikatuz eskerrak Donibane Lohizuneko hiriori eman diguten harreraren gatik, agurtuz ere Xabier Aizpurua, Kultura saileko Hizkuntza Politikako Sailburu-ordea, gutartera etorririk.

Epistola Albert Goyenche ad papam D. Leozium
(1847/03/06)

Albert Goyenche

Comme vous le savez, le 15 Mars de l'année dernière
j'ai écrit à votre Excellence le Cardinal de Bragança, Archevêque de Lisbonne, de la part de
Monsieur de Almeida, et j'ai eu l'honneur de vous adresser par le même courrier
un mémoire sur l'état de la religion dans le Royaume de Portugal, par lequel
j'ai exposé les motifs qui m'ont porté à vous adresser ce mémoire, et
à vous proposer de faire faire une enquête sur l'état de la religion
dans ce Royaume, et de vous adresser le résultat de cette enquête.
Je vous prie de vouloir bien agréer, Monsieur le Cardinal, l'assurance
de mon profond respect, et de croire que je suis, avec toute la
vénération possible, votre très humble et très obéissant serviteur.

Goyenche
Balthazar A. de Almeida
L. Donaldson

G. A. Goyhenetche en hiel papera P. Labizeman
(1900/01/18)

96:6

2^e feuille
64



Gratien Albert Goyhenetche
Né le 8 11 Janvier
place Louis XIV, 4.
tieu Marie

L'AN mil neuf cent, et le 18^e jour de Janvier à 9^h heures du matin Par devant nous
Dominique Loubé, 1^{er} Juge Officier de l'Etat Civil de la ville de Saint-Jean-de-Luz, département des
Basses-Pyrénées, sont comparus en nosre Mairie Antoine Paulhan, Secours municipal, âgé
de cinquante cinq ans et Emile Debibiz, veuve, âgé de quatre vingt ans,
Domiciliés en cette ville, lesquels ont déclaré que ce jour à 9^h heures du matin Gratien Albert Goyhenetche, décédé
en son vivant, mine de l'Etat de 18, âgé de cinquante deux ans, fils de Joseph Goyhenetche, propriétaire
desse de la maison en l'église paroissiale de la commune de Saint-Jean-de-Luz, et de Marie de la Roche, sa femme, est
décédé à la place Louis XIV, au mois de Janvier
ainsi que nous nous en sommes assuré, et avons les déclarés
signé avec nous le présent Acte de Décès après qu'il leur en a été fait lecture.

Antoine Paulhan *Emile Debibiz* *à la Roche*